



ELGOIBARKO IZARRA

HIZKUNTZ EKOLOGIA

"Elefante bat hilzorian ikusten malkoak isurtzen zaizkigu masailean bera, ezin dugu txoririk hiltzen ikusi, norbera itotzea nahiago bale bakan horietako bat hiltzen uztea baino, autobide baten proiektuak hankaz gora jarri ditu herritar asko eta asko, ...

Bihotzak biguntzen ari ote zaizkigun susmoa dugu; ekologia modan jartzen ari den hitza da, bizitza dugu bitxi preziatuena, bera dugu balore guztien gainetik aldarrikatzen duguna. Bazen garaia, ez da seinale txarra.

Baina, hizkuntza bat elefante bat baino gutxiago ote da? Leizarango bailarak mendeetan zehar gure lurretan erroturik izan dugun hizkuntzak baino balio handiagoa al du?

Euskarak ere bizitza esan nahi du, mendeetan zehar bizi izan den herri zahar baten oihartzuna dakar. Euskararen heriotza herri oso baten azkena da, Euskal Herriaren hain zuzen.

Zorigaitza ez da Euskararen soilik, ez da Euskara hilzorian dagoen hizkuntza bakarra, hamaika hizkuntza gutxitu dago trantze berean. Hizkuntza hedakor eta zapaltzaile gutxi batzuk gehiengoaren bizimina ito nahian dabilta.

Berdintasunak eta bizitzak hainbeste kezkatzen bagaitu, zergatik ez dugu hizkuntza ekologia defendatzen? Zergatik ukatzen dizkiogu Euskarari Gaztelarak edo Frantsesak dituen eskubideak? Non zaudete "bizitzaren oro defendatzaileak"? Gizon edo animalia baten heriotza trisnea izanik, ez al da are tristeagoa herri oso baten heriotza?

Gu ere bizitzaren alde gaude, bizitza duin baten alde. Berdintasuna da gure oihua, arrazen arteko berdintasuna, gizon-emakumeen arteko berdintasuna, herrien arteko berdintasuna; berdintasunean eraikitako bizitza aldarrikatzen dugu.

Arrainek ura bezalaxe, hizkuntzek bere lurraldea behar dute biziko badira. Euskarari Euskal Herria zor diogu, berea egingo duen hizkuntz komunitate bat. Zor hau ordainduz gero, ziur izan duen onena emateko irrikaz egongo dela Euskara.

Esaera zaharrak dioen bezala, ura pasa ondoren presea egitea alferrik dela eta, jadanik hasiak gara lehen harriak jartzen. Urak indar handiz jeitsiko direla badakigu, euskaltzale guztion beharrean garela garbi dakusagu, baina ez gabilta inoren urak harrapatu nahian, urak gureak dira eta gure lurren hezetasuna eta bizitza bermatzeko nahi ditugu.

Zergatik ez diguzu ahal duzun harri koskor handiena hartu eta zorioneko presea hau egiten laguntzen?

Laister bat gehiago izango garen esperantzarekin,

"ELGOIBARKO IZARRA"

"GUK EZ DUGU ESKATZEN BAZTERTZEKO; ETA ARE GUTXIAGO MOZTEKO, BESTE LORERIK, GEUREA BIZIRIK UZTEKO BAIZIK:

ONDASUN KOLEKTIBO DIRELA ETA, ANIMALI ETA LANDARE-ESPEZIEEK ERE, BEREN BALIOA BABESTUA ETA BULTZATUA DUTEN ZIBILIZAZIO MONETAN, GEHIEGI ESKATZEA OTE DA HORI? BA, HORIXE DA ESKATZEN DUGUNA."

Joxe Miel Barandáaran.

"ELGOIBARKO IZARRA"
BAZKIDE IZAN NAHI DUT (1)

ABIZENAK: _____ IZENA: _____

HELBIDEA: (2) _____ HERRIA: _____ TLFA: _____

JAIOTZE DATA: _____ LANBIDEA: _____

KUOTAK: (3) A ___ 3 hilabetero 1.000 pta. B ___ Urtean 4.000 pta.
D ___ 6 hilabetero 1.000 pta. E ___ Urtean 2.000 pta.

BANKETXEA: _____ ZBKKA: _____

BAZKIDE MOTA: (4)

_____ LANTALDE DINAMIKAN SARTZEKO PREST NAGO:

_____ ERINTZA EDO LAN PUNTUALETAN NIRE LAGUNTZA ESKEINIKO DUT:

_____ NIK DIRULAGUNTZA SOILIK EMANGO DUT:

-
- (1) Bazkide izan nahi baduzu, fitxa hau bete eta ELGOIBARKO IZARRA; Ubitarte 4, behe-ra bidali, edota 741626 telefonoza deitu.
 - (2) Helbide berria jartzea komeni da.
 - (3) KUOTAK: "A" eta "B" aukerak lanean ari den jendeari zuzanduak daude.
"D" eta "E" aukerak berriz, langabetu eta jubilatuei.
 - (4) BAZKIDE MOTA: Bazkide mota hauek ez dira behin betirako. Nahiz eta orain bat aukeratu, nahi denean aldatzeko aukera izango da. Lantaldeak, hasera batean bahinik bahin, nola bideratu daitezkeen jakitako besterik ez da.